26 nº zbk

Beasaingo Udala

# Beasaindik

MAYO **2018 MAIATZA**

**Udal Aldizkaria** *Revista municipal*



## Herriko jaiak, ate joka

*Llegan una año más las Loinatz Jaiak*

## AURKIBIDEA | *ÍNDICE*

**ETORKIZUNEKO BEASAIN ERAIKITZEN**

**2** ¬ Berritasunak guztion gozamenerako
¬ *Acordadas varias medidas sobre el ruido de las jaimas y la limpieza del río*
¬ Igartza Oletan norabide bikoitza berreskuratzeko proiektua prest

**BEASAIN, HERRI BIZIA**

**4** ¬ XXVIII. Beasain Idazlehiaketako sari-ematea
¬ Apirileko azoka berezia
¬ Trans mundua hitzaldia
¬ Balleta: Igartzako barandilla
¬ BIP 50. urteurrena
¬ Igartza Musika: Tolosako txistulariak
¬ Euskal liburuak kalera ekimena
¬ BKLren Aste Santuko kanpusa
¬ Memoriaren plazaren inaugurazioa

**BEASAINDARRAK PROTAGONISTA**

**6** ¬ *Beasain apuesta y cree en la capacidad de las personas*

**BEASAINDARRENTZAKO INFORMAZIOA**

**Beasaingo Udala | Loinazko San Martin plaza - 20200 Beasain | 943 02 80 50 | udala@beasain.eus**

## GUTUNA



**Xabier Matarranz**
Kultur zinegotzia

**BERRITASUNAK GUZTION GOZAMENERAKO**

Beste urte batez konturatu gabe iritsi zaizkigu guretzat hain garrantzitsuak diren Loinatz Jaiak.

Hainbat pertsonek egindako lanari esker guztion gozamenerako egitaraua osatu da, berritasunekin, baina baita urteroko ekimenekin ere. Esaterako, joan den urtean martxan jarritako indarkeria matxistaren aurkako eta alkohol kontsumoaren prebentziorako kanpainek jarraipena izango dute aurten ere.

Beti esan izan dugu errespetuak izan behar duela gure herriko jaien oinarri eta adierazle nagusia eta helburu horrekin, aurten ere lanketa berezia egin dugu jaimetako gazte eta tokiko bizilagunekin zarataren eta errekara botatzen den zaborraren arazoari irtenbidea emateko. Guztiek azaldu dute elkarlanerako jarrera eta horri esker, soinuari eta errekaren garbiketari lotuta zenbait neurri adostu ditugu.

Egitarauari dagokionez ere badira berritasunak, nahiz eta aurreko urteetako ia eskema bera jarraitu dugun. Berritasunik esanguratsuena MAIATZA DANTZAN programa da jaietako egitarauan txertatu duguna eta honen baitan 3 dantza emanaldi eskainiko dira.

Beraz, egitaraua itxita, soilik jaiez gozatzea geratzen zaigu. Goza ditzazuela aurtengo Loinatz Jaiak!

***Novedades para el disfrute de todas y todos***

*Casi sin darnos cuenta estamos ante las Loinatz Jaiak de este año. Seguimos creyendo que el respeto debe ser la base de nuestras fiestas y por ello, este año tendrán continuidad las campañas de prevención de consumo de alcohol y contra las agresiones machistas para favorecer unas fiestas más igualitarias.*

*Asimismo, hemos abordado, una vez más, el tema de las jaimas con la juventud y la vecindad afectada para intentar llegar a un acuerdo en cuanto al problema del ruido y la suciedad del río. Fruto de las reuniones mantenidas se han consensuado varias medidas que permitirán disfrutar a la juventud y descansar a vecinas y vecinos de la zona, garantizando además la posterior limpieza del río.*

*Que sean pues unas fiestas para el disfrute de todas y todos.* Ondo ondo pasa aurtengo Loinatz Jaietan.

# - LOINATZ JAIAK -

## *ACORDADAS VARIAS MEDIDAS SOBRE EL EXCESO DE RUIDO DE LAS JAIMAS Y LA LIMPIEZA DEL RÍO*



*El problema del excesivo ruido generado en las jaimas instaladas en la calle Zaldizurreta el día de los disfraces y la suciedad que se acumula dicho día en el río es un tema que preocupa y mucho al actual equipo de gobierno. Por ello, llevan años abordando el tema con la juventud y las y los vecinos afectados de la zona con el objeto de buscar una solución consensuada entre todas las partes.*

*El año pasado por ejemplo los grupos interesados en participar tuvieron que inscribirse previamente y limpiar el río posteriormente. Las cuadrillas que no se presentaron a la jornada de limpieza no podrán participar este año.*

*Al no ser muchas las cuadrillas que se acercaron a limpiar el río, este año se ha optado por otras fórmulas consensuadas entre todas y todos para dar una solución no sólo al problema de la suciedad y su posterior limpieza, sino también al excesivo ruido generado.*

*Medidas consensuadas:*

1. ***Limitar el volumen de los equipos de música***
2. ***Poner una fianza para la posterior limpieza del río*** *(en caso de ser necesario y que la suciedad sea excesiva como en años anteriores)*

**Mozorroen egunean errekan pilatzen den zaborraren eta izaten den gehiegizko soinuaren arazoari irtenbidea emateko, gazteekin eta bertako bizilagunekin bilerak egin dira eta musika-ekipoen bolumena mugatzea eta errekaren garbiketa adostea lortu da Udalaren bitartekaritzari esker.**

# IGARTZA OLETAN NORABIDE BIKOITZA BERRESKURATZEKO PROIEKTUA PREST



Herriko eremu ezberdinen eraldaketa ekarriko duten hirigintza proiektu esanguratsuak daude jasoak 2018ko aurrekontu proiektuan, eta horietako bat da, hain zuzen ere, Igartza Oleta kaleari dagokiona.

Beste proiektuek bezalaxe, honek ere, herritarren erosotasuna eta irisgarritasuna hobetzeko urratsak ematea ditu helburu, Beasain herri atseginagoa eta erosoagoa izan dadin bertan bizi diren herritar guztientzat.

Gauzak horrela, trafikoaren bi norabideak berreskuratuko dira, betiere, espaloia eta bidegorria mantenduz. Horretarako, errekaren aldeko alboan hegalak eraikiko dira.

Proiektua dagoeneko prest dago eta ahalik eta azkarren esleipen prozesua martxan jarriko da lanak uda ondoren has daitezen.




***Claves del proyecto:***

- *Se mantienen las dos aceras peatonales y el bidegorri.*
- *Se construirán varios tramos de voladizos sobre el río que permitirán el ensanchamiento de la acera.*
- *Se mejorarán considerablemente la seguridad vial, la accesibilidad y la comodidad de las personas.*
- *Disminuirá el tráfico de la Avda.  de Navarra y acortará el trayecto a realizar por las personas que viven en la parte alta del municipio.*
- *Se prevé que las obras comiencen después del verano.*

# APIRILEAN BEASAINEN


Argazkia: Fotoetxe

XXVIII. Beasain Idazlehiaketako sari-ematea


Apirileko azoka berezia


Trans mundua hitzaldia


Balleta: Igartzako barandilla



Argazkia: BIP ikasleak




BIP 50. urteurrena: antzerki amateurra eta liburu aurkezpena



Argazkia: Aldabe

Igartza Musika: Tolosako txistulariak



Argazkia: Alberto Mella

Euskal liburuak kalera ekimena




BKLren Aste Santuko kanpusa




Memoriaren plazaren inaugurazioa

# BEASAIN APUESTA Y CREE EN LA CAPACIDAD DE LAS PERSONAS

*El Ayuntamiento de Beasain participa en el Programa Pauso Berriak entendiendo que ello contribuye en la integración y mejora del bienestar y la calidad de vida de las personas. Por ello, el pasado año recibió un reconocimiento por su implicación y compromiso con este programa.*

*Pauso Berriak es un proyecto, promovido por Atzegi y Gureak Itinerary, de inclusión socio-laboral para apoyar y acompañar en su itinerario laboral a personas con discapacidad intelectual.*



*Aitor Aldasoro, Iñigo Garcia y representantes de Atzegi y Gureak Itinerary haciendo entrega del diploma.*

## IÑIGO GARCIA

### Udaleko langilea, Pauso Berriak programaren barruan

### Zer egiten du Iñigok bere lan egun batean?

**08:30** Bezperako egunkariak kendu eta egunekoei Udal zigilua jarri.

**08:45** Udalera iristen diren gutunak sailkatu eta sail desberdinetan banatu.

**09:30** Txikien liburutegia antolatu eta liburuak eta DVDak sailkatu.

**10:00** Liburutegiko ateak zabaldu.

Lan berriak antolatu, maileguen kudeaketa, jendearen arreta etab.

**12:50** Gutunak karroan sartu eta Correosera eraman.

Udan, igerilekuan irekitzen den liburutegi txikian ere laguntzen du.

**"Niretzat ilusio handia da udaletxean lan egitea. Oso zoriontsu egin nautela onartu behar dut. Gainera, lankideok harreman oso ona dugu, bat gehiago naiz"**













*El Ayuntamiento tiene empleadas a tres personas dentro de este proyecto teniendo en cuenta su perfil y sus capacidades . El último en incorporarse ha sido Goritz Galarraga, que realiza prácticas en el Euskaltegi desde hace algunos días.*

*Iñigo Garcia y Monse Salgado, que se incorporaron antes ya se han hecho a sus quehaceres diarios. Conozcamos el día a día de Iñigo y Monse y qué es para ellos trabajar en el Ayuntamiento de Beasain.*



*Goritz Galarraga con sus compañeras y compañeros del Euskaltegi, que lo han recibido con los brazos abiertos. Para ellas y ellos es también una experiencia nueva.*

## MONSE SALGADO

Udaleko langilea, Pauso Berriak programaren barruan

### Zer egiten du Monsek bere lan egun batean?













**08:45** Fitness aretoa txukundu.

**09:45** Takilak garbitu eta behar bezala antolatu bakoitza bere esekigailuarekin.

**10:30** Ikastaroetako materiala desinfektatu

**11:00** Atsedenaldia eta hamaiketakoa.

**11:20** Kiroldegiko sarrera garbitu eta zabor ontziak hustu.

**12:00** Aurreko belargunea zaindu eta bertako kartelak eguneratu.

**Ostegunetan, ONDO IBILI ONDO IZAN ekimenean laguntzen du eta udan, goizero igerilekua ireki aurretik txukundu egiten du.**

*"Trabajando en el polideportivo las y los beasaindarras ven y valoran lo que hago. La gente me conoce y tengo relación con ciertas personas. La relación con mis compañeras y compañeros es muy buena."*

# Bizi ditzagun! ¡Vívelas!






**LOREZ APAINDUTAKO LEIHO ETA BALKOIEN 2. LEHIAKETA**

*2º CONCURSO PARA DECORAR VENTANAS Y BALCONES CON FLORES Y PLANTAS*

**Helburua** *Objetivo:*

**Balkoiak eta leihoak zaintzea eta horiek apaintzen jarraitzeko ohitura berreskuratzea** *Mantener los balcones y las ventanas cuidadanas y recuperar la costumbre de decorar las mismas*

**Izen-ematea** *Inscripción:*

2018/06/01-2018/06/15 **merkataritza@beasain.eus**

**Apainketa epea** *Plazo de decoración*

2018/06/15-2018/07/30

**Sari-banaketa** *Reparto de premios:*

**Uztailaren 7an, 13:30ean, Loinazko San Martin plazan** *7 de julio a las 13:30h en Loinazko San Martin plaza*

## DATUEKIN JOLASEAN

**Loinatz jaietako kartel lehiaketako parte hartzea**

*Participación concurso de carteles Loinatz jaiak*

| Urtea *Año* | 7-15 urte *7-15 años* | Helduak *Adultos* | Guztira jasotako lanak *Total obras presentadas* | Jasotako botoak *Votos emitidos* |
|---|---|---|---|---|
| 2016 | 192 | 26 | 218 | 362 |
| 2017 | 188 | 32 | 230 | 113 |
| 2018 | 277 | 26 | 303 | 323 |

**2018ko Loinatz jaiak - Egitarauko ekitaldiak**

*Loinatz jaiak 2018 - Eventos de la programación*

| **Ekitaldia** *Evento* | **Kopurua** *Cantidad* |
|---|---|
| **Musika ekitaldiak** *Musicales* | 14 |
| **Kale antzerkiak** *Teatro de calle* | 3 |
| **Haurrentzako ekitaldiak** *Infantiles* | 16 |
| **Dantza ekitaldiak** *De danza* | 10 |
| **Kirol ekitaldiak** *Deportivos* | 9 |

* **Txosnatakoak kontutan hartu gabe** *Sin incluir eventos de las Txoznas*

## JAKINARAZPENAK
## *NOTIFICACIONES*

**EGUTEGI FISKALA** *CALENDARIO FISCAL*

| **ZERGAK ETA TASAK** *IMPUESTOS Y TASAS* | **Kobrantza epea** *Periodo de cobro* |
|---|---|
| **Ondasun Higiezinen gaineko Zerga (OHZ)** *Impuesto sobre Bienes Inmuebles (IBI)* | 2018.05.15 - 2018.06.30 |

***Helbideratutako ordainagiriak borondatezko epearen azken egunean kobratuko dira** *El cobro de los recibos domiciliados se realizará el último día del periodo voluntario.*

## LOTURA INTERESGARRIAK
## *ENLACES DE INTERÉS*

- **kzGunea**
  www.kzgunea.eus
- **Musika Eskola**
  www.beasaingomusikaeskola.eus
- **Antzizar kiroldegia**
  www.antzizar.net
- **Udal Euskaltegia**
  www.udaleuskaltegiak.eus
- **Igartza monumentu multzoa**
  www.igartza.eus

**www.beasain.eus**

Lege gordailua SS 403-2016

**Beasaingo** Udala